

HITZ BITAN

ETXEBIZITZA 288 milioi euroko inbertsioa egingo du

Babes ofizialeko 3.400 etxebizitza eraikiko ditu Eusko Jaurlaritzak Donostian

Ainara Arratibel | DONOSTIA

Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 3.400 etxebizitza eraikiko ditu datozen hiru urteetan Donostian. 288 milioi euroko inbertsioa egingo dute, eta helburua Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak babes ofizialeko etxebizitzak eraikuntza bultzatzeko sinatutako hitzarmena gauzatzea da.

Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok azaldu zuenez, etxebizitzak prezio altua da Donostiak duen arazo larrietako bat, eta asko dira etxebizitza erosi ezin dutenak. Egun, esaterako, Donostian erroldatutako 12.366 lagunek egin dute eskaera babes ofizialeko etxea eskuratzeko. Horie-

tatik 7.690ek 35 urte baino gutxiago dituzte. «Esanguratsua da, eta 3.400 etxebizitza eraikiz, arazo hori konpontzeko dugun asmoa berretsi nahi dugun», esan zuen Madrazok.

2.000 etxebizitza Antonegin eraikiko dira, eta 144 Loiolan. «Loiolan babes ofizialeko 166 etxe gehiago eraikitzeke baimena eskatu diogu Udalari, baina ez dugu erantzuna jaso», esan zuen Madrazok. Marrutxipin eta Izan etxeak eraikitzeke proiektua ere abian da.

Auditx-Akularren babes ofizialeko 2.539 etxebizitza eraiki nahi ditu Donostiako Udalak. Donostiako alkate Odon Elorzaren ustez, «duela urte batzuk Intxaurrenondon gauzatu zen proiektua baino garrantzitsua izango da hau». Hori dela

eta, «onartezina» dela esan zuen oposizioko alderdien jarrera. Izan ere, ez dituzte onartzen Auditx-Akularren babes ofizialeko etxebizitzak egiteko hirigintza planean egin beharreko aldaketak. Oraingoz Auditx-Akularren babes ofizialeko 500 etxebizitza egiteko lurrak saldu dizkio Udalak Eusko Jaurlaritzari.



GARI GARAIALDE/ARGAZKI PRESS

Jose Javier Dean, Javier Madrazo, Odon Elorza eta Jorge Letamendia, atzoko agerraldian.

Diru laguntzak handitu ditu Nafarroako Gobernuak

Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko laguntzak handitu ditu Nafarroako Gobernuak, maiatzean erabakitako moduluaren igoera berdintzeko. Beraz, maiatzetik aurrera erositako etxebizitzengatik jasotzen diren fondo galdurako diru

laguntzak handitu eta maileguaren interes subsidiarioaren beherapena ezarriko da.

Esaterako, 21.500 euroko zerga oinarriaren zati orokorra duen bi kideko familia batek 1.582 euro gehiago izango ditu laguntzarako, eta maileguaren interesa 1,5 puntu txikiagoa izango da, 85 metro koadroko etxebizitza erosterakoan.

INGURUMENA. Zentralak 3 milioi lagunentzako arriskua dakarrela salatu zuten



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

200 lagunek eskatu dute Garoña ixtea

Berrehun pertsona inguruk parte hartu zuten iragan igande eguerdian Garoñako zentralaren aurkako ibilaldiaren aurten goi ekitaldian. Manifestariak Quintana Martin Galindez herrian elkartu ziren, eta ordubetetik gorako bidea egin zuten zentral nuklearrera iritsi arte. Ekologistek leloak esan zituzten Garoña lanean emandako 32 urtean aurka, eta Europako komisario Loyola de Pala-

ciosi eskatu zitoten zentralak Espainiako Gobernuaren egoitzan jartzeko. Mobilizazioaren ondorioz, Ekologistak Martxan taldeko Miguel Sotok salatu zuen zentralak, biztanleria gutxiako tokian kokaturik badago ere, «arriskua» dakarrela inguruetan dauden hiru milioi lagunentzat, gehienak Euskal Herrikoak. Espainiako Segurtasun Nuklearraren Kontseilua zentralaren «ondorio kaltegarri asko» ezkutatzeko ari dela ere esan zuen. Era berean, gogora ekarri zuen Espainiako Gobernuak iragarri duela Zoritakoa ixtea, eta zorrotz kritikatu zuen Garoñaarekin berdinean ez egitea, biak ala biak garai berekoak izanik.

OSASUNA

Bilbon zentro bat zabaldu dute buruko kolpe larriengatik lan egin ezin duten gazteentzat

Edozein motako istripuetan buruan kolpe larriak izan, eta lan egin ezin duten gazteentzat zentroa zabaldu dute Bilbon. 15 eta 30 urte arteko gazteak laguntzea du helburu zentroak. Ezintasunaren arabera, lan egiteko trebatuko dira, hain zuzen.

TEKNOLOGIA BERRIAK

'Platinum 7.0' birusen kontrako programa kaleratu du Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak *Platinum 7.0* birusen kontrako programa kaleratu du, Panda Software enpresaren laguntzaz. Programak era guztietako birusak atzeman eta desegin ditzake, bai artxibo trinkoetan eta baita sareko unitateetan ere. SmartClean teknologia baliatzen du, eta eguneratze automatikoak egiten ditu.

HEZKUNTZA

EAk osoko zuzenketa aurkeztu du Espainiako Hezkuntza Ministerioaren Kalitate Legearen kontra

Eusko Alkartasunak (EA) osoko zuzenketa aurkeztu zuen atzo, Espainiako Hezkuntza Ministerioak prestatu duen Kalitate Legearen kontra. Legeak hezkuntza arloan Jaurlaritzak dituen eskumenei «eraso» egiten diela uste du EAK. «Hezkuntza sistemari dagokion guztia erregulatzen du», salatu du.

GENERO INDARKERIA

Gizon bat atxilotu dute Gasteizen, bikotekidea labanaz mehatxatzeagatik

Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen herenegun, Gasteizen, ustez bikotekidea labanaz mehatxatzeagatik. Emakumeak ertzainei esan zien bikotekideak labanaz mehatxatu eta hiritik joatera behartu nahi zuela.

KONTSUMOA

2003ko urrian jarriko dira indarrean 906 telefonoen ordezkotzenbakiak

2003ko urrian jarriko dira indarrean 906 telefonoen ordezkotzenbakiak. 803, 806 eta 807 izango dira, eta deien balioa adieraziko diote kontsumitzaileari. Deia-zenbakiaren arabera izango da.